


# ↻ Hizpide ↻

## Haur eta Gazte Literaturaren kritika: gogoeta batzuk


MANU LOPEZ GASENI



Mikel Valverde

**K**ulturaren edozein arlotako emaitzen azterketari kritika izena eman ohi zaio, batzuen ustez inplizituki daraman konnotazio negatiboaren inolako aztarnarik gabe. Literaturaz ari bagara, Literatur Teoriak bereizketa tradizionala egina du, literatur kritika eta literatur historiaren artean.

Literaturaren historia literaturaren proiektzio dinamiko edo diakronikoaren ikuspegia da; axola zaiona testu-hurrenkera historikoaren azterketa da, obra bakoitza bere garaiarekin loturik, obraren sorreraren baldintzak eta harreraren gazi-gozoak kontuan hartuz.



Mikel Valverde

Literatur kritikak, berriz, literatur teoriaren printzipioak, legeak eta sailkapenak baliatzen ditu obra jakinetara aplikatzeko; horrek, sarri askotan, obren balorazioa dakar berekin. Esan gabe doa, garaian garaiko literatur kritikak dira, azken batean, literaturaren historiaren oinarririk garrantzitsuenetakoa.

Luze joko luke literatur kritika moten sailkapenak. XIX. mendean kritika inpresionista zen nagusi; eta XX. mendean zehar kritika «zientifikoak» garatu nahi izan dira: kritika soziologikoa, psikoanalitikoa, formalak edo estrukturalak, estilistikoa, *new criticism* delako korrante estatubatuarra, pragmatikoa, dekonstruktibista, harreraren estetikan oinarritutakoa, eta abar.

Kritika mota guztiok akademikoak direla esan genezake, baina horiekin batera kritika «dibulгатiboak» ere egiten dira, noski, aldizkari eta egunkarietan, eta kritika horiek XIX. mendeko haiekin dute lotura, oro har inpresionistak direlako. Interesgarriak dira, irakurleriaren ordezkari-tzat har daitekeen irakurle (aditu) baten birsormenaren lekuko diren aldetik. Izan ere, Housman-ek zioenez, obra literarioaren ontasun edo ontasun eza atzemateko bideetako bat irakurlearengan sorrarazten dituen erreakzio fisikoak jasotzea da.

Literatur kritikaren gorabeherak Haur eta Gazte Literaturaren arlora ekarriz, zenbait berezitasunez oharitzen gara. Lehenbizi, Literatura Nagusiaren ikuspegitik HGL azpiliteratura den aldetik, eman zaion atentzio kritikoa oso urria izan da. Unibertsitatearen arloan, esaterako, joan den hamarkadan egin ziren HGLri buruzko lehen ikerketa literarioak. Garai bertsuan jaiotakoa da *CLIJ* aldizkaria, bere azterketetan HGL literatura orokorraren testuinguruan kokatuz.



Mikel Valverde

## ↪ Hizpide ↪

Bigarrenik, pedagogia eta literaturaren arteko estatusak eraginda, kritika inoiz ez da kritika literario soila, baizik eta, sarritan, alderdi pedagogikoak nagusitzen dira: hizkuntzaren eta adinaren arteko egokitasuna, ukitzen diren gaiak eskoletako zehar-lerroekin bat datozen ala ez, testuaren luzera, eta abar.

Hirugarrenik, aurreko joeretatik abiatuz, eta haurraren tokian jartzeak dakarren subjektibotasunaz ohartuta, HGL kritikaren ezintasunaz mintzatzen diren ahots batzuk entzun ohi dira, ustezko demokratizazio baten izenean. Kritikaren kritika mota hori ez da berria kulturaren beste arlo batzuetan: margolan baten kritika egiteko margotzen jakin behar dela, edo kamara, *script*, gidoigintza, argiztapena eta muntaketa lanak egiten jakin ezean film baten kritika egitea ezinezkoa dela diotenen haritik.

Iritzi horren oinarria, azken batean, ez da haurraren-tokian-jartzeko-ezintasuna, baizik eta kanon finkatu baten gabezia. Hau da, HGL kanonikoa (garai bakoitzean baloratuena, kalitatezkoa, eredugarria, eta abar) zein den zehazten ez dugun bitartean, ezin dugu esan zein den ez-kanonikoa (bigarren mailakoa, estereotipatua, kalitate gutxikoa).

HGLren kanonari buruz eztabaida biziak gertatu dira. Arazoa ez da kanonik eza, baizik eta kanon hori zehazteko adostasun falta. Baina horixe da, hain zuzen ere, kanonaren ezaugarrietako bat, HGLren «instituzioaren» inguruan mugitzen diren indar guztien arteko tirabiren ondorioa, aldagarria definizioz: argitaldaria, kritikoak, aldizkariak, idazleen elkarteak, hezkuntza eta kultura erakundeak, lehiaketak, mass media direlakoak... Horien guztien arteko botere-borroken ondorioa da kanona.

Teresa Colomer irakasleak XX. mendearen bigarren erdian egindako haur eta gazte literaturaren ezaugarri kanoniko batzuk bildu zituen bere ikerketa batean. Gaien aldetik, esaterako, «fantasia modernoaren» agerpena aipatzen zuen: errealismo fantastikoa, zientzia fikzioa, eta beste; horrekin batera, «fikzio errealista berria» delakoa, gai sozialak eta psikologiko-pertsonalak ukitzen zituena. Aipatutako gai horiek lehenagoko beste batzuk gainditu zituzten, interes ka-



Mikel Valverde



Mikel Valverde

## ↪ Hizpide ↪

nonikoari dagokionean: abenturazko kontakizunak, kontakizun historikoa, animalien bidezko kontakizunak, umore kostunbrista, eta abar. Egile berari jarraikiz, baina oraingoan diskurtsoari buruzko joera berriei erreparatuz, honakoak aurki daitezke: diskurtsoaren antolakuntza berriak (kateatzea, txandakatzea, istorioa istorioaren barruan), testu ez-narratiboak tartekatzea, generoen arteko nahasketa; ikuspuntu eta ahots fokalizatuen erabilera (barneko eta kanpoko fokalizazioak). Beraz, beste kontamolde batzuk kanonikoki gutxiago baloratzen dira: narrazio linealak, narratzaile orojakileak...

Hipotesi gisa, euskal HGLn ere antzeko zer-bait gertatzen ote den galde genezake, beti ere, arestian esan dugun bezala, kanonaren izaera aldakorra gogoan izanik. Horra kritikaren beste zeregin bat.

Beste alde batetik, haurrentzako liburugintzaren testuingurua errotik aldatu da azken urteotan: haur liburuak gero eta konkurrentzia handiagoa du telebista eta konputagailuekin, eta horrek ikuspegi editoriala aldarazi du. Gero eta gehiago, lehendik telebista eta beste mass-mediaren bitartez ezagutzen diren pertsonaia eta istorioen inguruko liburuak argitaratzen dira, eta horrek ikus-entzunezko munduaren azpiatal bihurtzeko arriskua dakar. Egoera berrietara egokitutako liburu horiek, gainera, egitura eta eduki berriak dituzte, eta horrek ere kritikaren atentzioa erakarri behar du, beharbada kritika-tresna berriekin (marrazki bizidunen telesailen azterketa, literatura eta zinemaren arteko zubiak, eta abar). Berriki argitaratutako artikulu batean, Veljka Ruzicka Kenfel irakasleak horretaz guztiaz ohartarazten du, eta kritikaren garrantzia azpimarratzen.

*«Aparte de la escuela, el papel de la crítica se muestra fundamental en estos momentos [...] La atención de la crítica se debe centrar no sólo en la defensa del valor de la literatura como concepto de arte que enriquece nuestra lengua, desarrolla nuestra inteligencia y nos hace comprender el mundo, sino también tiene que in-*



Mikel Valverde



Mikel Valverde

## ↪ Hizpide ↪

*cluir una crítica más radical y más contundente a todo el contexto multimedia, en el cual ya está impregnada una buena parte de la literatura infantil y juvenil.»*

Laburbilduz, eta gure ustez, HGLk, kultur ekoizpen guztiek bezala, kritikaren beharra dauka hazi eta hobetu nahi izango badu. Kritika hori, gainera, teorizazio sendo baten gainean eraiki behar da, eta haur liburuen inguruan ibiltzen diren elementu guztiak kontuan hartuta lan egin behar du, askotan aurreiritzi askoren aurka. Eta haur eta gazte literatura-aren kontsumitzaile eta bitartekariak, «halako haurrei gustatu zaie / ez zaie gustatu» datuen ondoan, kritikaren ikuspuntua ere ezagutu behar dute, osagarri gisa gutxienez, haur liburuen labirintoan norabide bat bilatzeko orduan.



Mikel Valverde

## Bibliografía

- AGUIAR E SILVA, V. M. (1986). *Teoría de la literatura*. Madrid: Gredos.
- COLOMER, Teresa (1998). *La formación del lector literari*. Barcelona: Barcanova.
- HOUSMAN, A. E., in YLLERA, A. (1979). *Estilística, poética y semiótica literaria*. Madrid: Alianza.
- KENFEL, Veljka R. (2001). «*La situación de la literatura infantil y juvenil alemana en la sociedad multimedia: transformación funcional y creación de Medienverbundliteratur como nuevo género literario*», *Lazarillo*, 4. zkia., 46-57.
- WELLEK, R. eta WARREN, A. (1979). *Teoría literaria*. Madrid: Gredos (7. ed.).